

99

pausu

ganorabakoen

aldamenean

"Galdera handiei fundamentu gutxiko erantzunak dagozkie."

*"Munduan zehar POETA edo MAISU deitzen zioten. Bere herrian
GANORABAKO."*

99 pausu emango ditugu ganorabakoen aldamenean ea fundamentu gutxiko erantzunen bat aurkitzen dugun gure galdera handientzat.

Proposatzen diren pausu guztiak ematea nekoso samar suertatuz gero, irakurle-asmatzaile-antzerkigileak asma beza nondik ibili eta nondik ez. Baten batek hunkidurazko pausuak hautatuko ditu, besteren batek barregurazkoak, politikoenak beste batek, tontoenak hurrengoak... horrela da... hautatu beharra dago, bizitzan bezala. Halaber, testu hauek *itxi* gabe daude, hau da, inork moztu zein aldatu nahi balitu, edota bestelako garapen bat eman nahi balie, zilegi da, jolasteko sortuak baitira.

Hainbat galdera handi daude lan honen oinarrian, hala nola: Zeintzuk dira gure pentsamoldeak jartzen dizkigun tranpak? Zer gertatzen da dagoenaren inguruko diskurtsoekin? Zer da menpean egotea? Non ditugu mugak? Zer liluratuko gaitu bihar?

Gure barnean dugun fundamentalista ttiki oro da lan honen jo-puntu.

Baita inguruan ditugun fundamentalista handiak ere.

Ganorabakoak potentzialki indartsuenak dira. Ez dakigu zertarako, baina badaezpada ere euren inguruan bildu beharko genituzke indarrak.

PLAY

ESZENATOKI ALBOAN BI MAHAI: Batean edariak eta pikatzeko gauzak egongo dira. Nahi duenak har dezala. Bestean soinu eta argi-mahaiak daude. Nahi duenak jar dezala esanez bezala. Eszenetan erabil litezkeen bestelako objektuak daude inguruan, bista-bistan. Musika ekipoa, diskoak, giro-soinu grabatuak. Edonolako argiztapen elementuak ere, txikiak zein handiak. Jantziak ere bertan daude. Kamerinorik ez dago.

Publikoa aldamenean dago. Dena publikoari esaten zaio hasiera batean, belarrira bezala, edo begietara, edo eskuetara... Denok gara parte, espazio berean baikaude elkarrekin.

Aktoreak publiko artean egon daitezke, eta hortik mahaietara hurbildu, mokaduren bat hartzera, edo musikaren bat edo argiren bat instalatzera.

Aktore bakoitzak toalla bat hartu eta luze zabaldu eta lisatzen du zoru gainean.

Hondartzan neguan bezala kokatzen dira toallak lurrean zabaldua eta gainean etzanda, begiak itxita, bakardade intimo goxoan, 10 minutuko siestatxoa egiten duenaren patxadaz. HORRELA DAUDELA, NOIZEAN BEHIN KARTELAK ATERATZEN DITUZTE toaila azpitik eta erakutsi egiten dituzte. Bazile-tentsio bat dago.

2 MINUTU BARRU HASIKO GARA

MINUTU BARRU HASIKO GARA

EZ, 3 MINUTU BARRU HASIKO GARA

ONGI ETORRIA ZARA

5 MINUTU BARRU HASIKO GARA

10 MINUTU BARRU HASIKO GARA

30 SEGUNDU BARRU HASIKO GARA

HASTEN ARI GARA

ONGI ETORRIAK IZAN ZAITEZTELA OPA DIZUEGU

BIHOTZ-BIHOTZEZ

BIRIKA-BIRIKAZ

URDAIL-URDAILEZ

GILTZURRUN-GILTZURRUNEZ

ETA BATEZ ERE: BURMUIN-BURMUINEZ

NAHI DUENAK PIXA EGITEKO DENBORA DAUKA ORAINDIK

YA EZ!

BAGOAZ!

HONDARTZAN AMETSETIK ANTZERKIRA

Hondartzan: Donostiako Zurriolako hondartzako soinu grabazioa, trajebainua, toalla, betaurreko ilunak, bero itzela. Bero horrekin, irreal dena erreala denaren parte bilakatzen da.

- Lehena ailegatu naiz berriro hondartzara udako goiz batez, toalla kokatu, eguzkitan etzan, loak hartu... eta esnatzean jendez inguratuta egotea, lokarpen horretatik bueltan planetaz erratu bazina bezala, eta inguruko elkarrizketak zurrumurruan olatuekin bilduta, eta hurbiltasuna sentitzea albokoekin nahiz beste planetakoak izan, espia parte hartzailea izan besteenean. Gero batengana joan, besarkatzeko baimena eskatu "Ei, barkatu, besarkada bat hartuko zenidake?" dotoreziaz eskatu eta besarkada hartu-eman ezezagunarekin, lasaiki, maitekiro... "Eskerrik asko" eta zure toallara itzuli. Zure gauzak egitera. Eta holaxe. Eta geroago, gogorik baldin baduzu, beste norbaitengana joan, besarkada eman eta bien arteko energia pixkanaka orekatzen da, lasaiki, ez dago minik. Laztanak bakarrik. Ez zait inor inoiz haserretu horregatik. Nire azalak eskertzen du.

Hala nola, intsolazio ttikia dugunean izaten ditugun burutazioak [tentsioa, tentsioa egon behar du, aurkitu al duzu tentsiorik?] eta gizajendearekiko harremanak desberdin planteatzen direnean, kontrolak eta tentsioak baretzen direnean, une gozo horiek [zenbat litro edan behar horretarako] dena den, hara: uste dut Olatz eta Aitzolek [ala bigarren ilarako muturretan dauden ikusle bi horiek, ez dakit nola deitzen zareten] ez dutela elkar ezagutzen, bistaz behintzat ez, baina biraka ari den ziba baten bi leku desberdinetan daude, ZAUDETE, eta oreka kosmikoa dago bien artean, egiten dituzten gauzak nolabait osagarriak dira une honetan, yin eta yang-a bezala, mundu beraren parte diren ekintzak. Ohartu daitezke ala ez. Baliteke ezer ere ez gertatzea haien artean, baina pena litzateke. Askotan gertatzen da. Ez dut nik baldintzatu nahi haiek oraindik baldintzatu ez dutena.

Milaka kasu gertatzen ari da une honetan munduan. Bihar hainbat pertsona elkar ezagutzera doaz. Honek hau ezagutzen du, besteak bestea. Egun batzuetan jende berria ezagutzen duzu eta beste batzuetan ez. Eta nire ustez bihar elkar ezagutzera doazen pertsonak hasi dira elkartzen dagoeneko, baina oraindik ez dakite. Haiek oraindik ez dakite baina ekintza paraleloak egiten hasi dira auskalo noiztik. Halako ekintza batzuk detekta ditzaket nik, urte asko daramat honetan eta seguru nago.

Ea ba:

BAKOITZAK BERE ALDETIK BAINA ALDIBEREAN EGITEKO GAUZAK, LASTER ELKAR EZAGUTZERA ZOAZTENEAN BAINA ORAINDIK ELKAR EZAGUTU GABE ETA UNE HORRETAN BESTEA ZERTAN ARI DEN JAKIN GABE:

- Albertxiko bat jan & behatzen arteko bolatxoak atzamarrekin kendu.

(Batak egiten du gauza bat eta besteak bestea. Eta hor harreman bat dago. Argi dago, nire ustez.)

- Harri zapal bat laztandu & egurrezko banku batean biluzik eseri.

- Batek errepidean susto bat hartu & eta besteari komuneko papera bukatzea.

- Itsasoan bainu bat hartu batek & pinuarena egin frontoiko frontisaren kontra besteak.

- Batek intxaurrak ireki eta geroago jateko gorde & besteak alkandora bati botoiak aldatu.

- Aste honetako hasperenik handiena egin & besteak poema bat idatzi.

(Taupadak, amankomuneko une intimoak.)

- Jazz piano jole zahar baten binilozko diskoa biraka jarri & paperezko itsasontzi bat eraiki.

- Zelai batean koloretako loreak bildu & kalera ateratzeko bainugelan bereziki apaindu.

- Liburu batean ipuin deigarri eta kitzikagarria irakurri & lagun arteko saskibaloi partida berebizikoa jokatu.

- Bat txalupan arraunean ibili & besteak itsasargiaren azpian larrua jo hirugarren batekin.

(Honek berezia dirudi baina, maitasun istorio hain mikroskopikoez ari garela, ze axola zaigu bakoitzak zer gehiago egiten duen? jelsiarik ez dago jolas honetan, konexioak era askotakoak dira, zurrunkeriak ez, mesedez.)

- Oinetako azkazalak *kolorinez* pintatu & sauna batean egon.

- Udazkenean manta bat erosi & basoan gaztainak bildu.

(Oso ezaguna hau, baina ederra berdin-berdin:)

- Ortzadar berberari begira egon bi leku oso desberdinetatik ordu berean.
- Zeruan zirimolutzen diren lainoei begira egon bi leku ez hain desberdinetatik ordu berean. KONEXIO ITZELA!
- Karramarro bat xaxatzen ibili & denbora pasako hizki-zopa ebatzi.
- Senide ez oso urrun bati eskutitz bat idatzi & dentistareneko itxarongelan aldizkari berri batetik 3 orrialde moztu eta poltsikoratu.
- Behingoz alboko bizilagunen eztabaidatan parte hartzea erabaki & zamarra ederra aurkitzea zaborretan.
- Goiko masaileko hagin batean enpatea jarri berritan kaletik ibili ahoa bero-bero lokartuta & hitzaldi luze bat entzuten egon pixagurea agoantatzen.
- Giza bilkura batean biziki aspertu & hiriko parke batean luze egon ezer egin gabe, norbaiten zain egoteko sentsazioarekin baina inoren zai egon gabe.

(Ez dakizu non egongo den, batzuetan kilometro askotara, baina txinparta modukoak dira eta arin bidaiatzen dute.)

- Neguko erakusleihoak begiratu oraindik beroa egiten duenean & telefono listinean izenen bila ibili balizko seme alabaren bat izendatzeko.

(Hara, oraintxe bertan pasatzen ari dira txinparta batzuk hortik zuen artean, zerbait garrantzitsua gertatuko da zuon bihotzetako batean. Lasai, ez da infartua izango. Bihotz taupadak arindu egingo dira eta lau begi piztu egingo dira begirada trukean. Begiradek maizago topatu beharko lukete elkar, begi-mugalariak behar dira, begi batetik beste baten begiraino poz malko bat eramateko gai direnak.)

- Hegazkin baten marrazkia egin & bidaia agentziako eskuorri guztiak zaramara bota.

(Egon daiteke hemen ala han, beti ikusten dira distirak. Hara!)

- Eguna mendian emateko janaria prestatu & egunkarian ezagun (ez oso ezagun) baten eskela topatu.

(Zure oreka puntua aurkitu behar duzu bakarrik, pertsona hori zure ondoan ala mila kilometrora egon daiteke eta berak bere oreka topatuko du zurekin batera.)

- Gosariko ogi xigortuaren gainean mermelada zabaldu & pegatina bati atzeko papera kendu nonbaiten pegatzeko.

- Goiz osoa eman zakur baten zaunkari esanahia antzematen & beste baten ezkontza osteko dantzan aritu.

- Kandela piztu & kanutoa pasa.

- Beste bati gertatuko zaiona klarki igarri & atzo egin zenuena ahaztu.

- Maitasunez eta gustura entzun izandako abesti batek gogaitzen zaituela lehenengoz sentitu & zuhaitzetik hartutako pikua ahora eraman eta lehor dagoela ohartu.

(Euskarria behar du gizabanakoak, eta euskarria ez dago beti berak utzi uste duen lekuan, bilatu egin behar, hasieran pentsaezinezkoak dira, oso inportantea da hau jakitea... eta jendeak ez daki! Begiratzen jakitea, hortxe dago koska!)

- Logelako gortinak aldatu & aspaldiko lagun baten gutuna jaso.

- Aspaldiko lagun bati deitzeko aspaldiko gogoia bete eta harekin geratu & amamarekin besotik helduta paseotxoia eman parketik.

(Guzti honek alderantziz ere funtziona dezake, ADIBIDEZ: zuk beste norbait ezagutu nahi duzunean, orduan zerbait egiterakoan pertsona horrengan pentsatzen duzu, eta pentsatzen duzu pertsona hori une honetan zertan aritzea gustatuko litzaizukeen.)

- Bainu bat hartzera noa!

ORDEZKOEN ORDUA

- Zuk esango al diezu?
- Nik? Ez. Nik ez nieke ezer esango.
- Baina konturatuko dira.
- Ke ba.
- Esan egingo diet, e... gaizki iruditzen zait bestela... Zera...
- Kontua da ez garela benetakoak...
- Ez. Tira. Kontua da lagun batzuk antzerki obra eder bat prestatu zutela. Esango nuke haiek pasa zutela bizitza osoa obra hori sortu ahal izateko, gaur hona ekartzeko hain zuzen ere. Gero ja entseguetan bi urte luze eman zituzten. Baina azkenean obra hori ezin zutela hona ekarri, batek burua galdu zuelako... bestea bizioak galdu zuelako... Kontua da guri esan zigutela euren partez etortzeko, izenburu berarekin baina beste zertxobait egitera, antzekoa edo. Ezezkoan egon ginen baina bale, benga, egingo dugu! Hasi ginen obra bat egiten eta azkenean ez zen posible aurrekontu nahikorik ez zegoelako, ez dakit zer...
- Dena kontatu behar al duzu!
- Orduan erabaki genuen beste obra bat egitea, ximpleagoa. Aldatu genituen oinarrizko gauza batzuk eta ordezkioak jarri genituen. Egia esan, kendu genituen... gauza pilo bat... Eta tira, azkenean moldatu genuen gauza itxuroso moduko bat. Baina hemengo programatzaileari erakutsi genion eta esan zigun: "Hau egin behar al duzue nire herriko antzokian? Ezta pentsatu ere! Zuek ze uste duzue ba!" ; "lasai, lasai, ez dugu *hau* egingo, beste bat egingo dugu" (pixka bat arraro begiratu zigun baina "bale"), hori atzo izan zen. Atzo?
- Gaur goizean izan da hori.
- Gaur? A, klaro... Ba... Pentsatu dugu: Orain dela bost urte egin genuen muntaia hura egingo dugu! testuak badakizkigu, eskenografia ekartzeko denbora nahikoa dugu... Benga! Hasi gara hori egiten, kargatu ditugu eszenografia eta traste guztiak kamioian eta hona iristerakoan konturatu gara... zera... bost aktore ginela obra horretan. Deitu diegu besteei telefonoz momentu batean, baina keba, bata liatuta zebilela, besteak mobila koberturarik gabe, eta hirugarrena sexu

aldaketa operazio batetik ateratzen ari da... Une batez zera esan dugu: Ezinezkoa da!

- Ezinezkoa?

- BAI ZERA!!

- Muntatu dugu eszenografia guztia eta bazkaltzera joan gara. Jatetxean ezagutu ditugu kasualitatez hiru aktore, bueno, ez ziren aktore-aktoreak baina konbentzitu ditugu eta kafe ostean hona etorri gara bostok zuontzako zerbait prestatzeko asmotan. Laurak bueltan izan da hori. Lehendabizi obraren eskema txiki bat adostu dugu denon artean. Ordutik hona hiru aldiz aldatu dugu dena goitik behera. Bost minutu falta zirenean baten bat erosketa batzuk egitera joana zen ...eta ez da oraindik itzuli. Beste batek pikutara bidali gaitu sei eta erdietan... kabreatuta gainera... Gero ni ere ez naiz egongo, ze argiekin eta soinuarekin norbait arduratu behar da ere... *En fin!*

- Zazpigarrena da hau. Zazpigarren bertsioa.

- Gutxienez.

- Ordezkoen ordezkoaren ordezkoen ordezkoaren ordezkoaren ordezkoaren ordezkoa.

- Gutxienez.

- Hala ere, nik uste dut nahiko ondo dagoela.

- Klaro, hau guzti hau esplikatuta...!

- Bueno, dena den, ni ez nintzateke orain hemen egon beharko.

- Hori ere egia da.

- Egia esango dizuet behingoz. Ezkontza bat dago. Ez dago. Nire ezkontza. Ez naiz joan. Gaur zen. Ordu honetan egongo ginen... dantzaldiaren onenean... Bi gauzak ematen didate pena: 1: Banketea... 2: ...dantzaldia galdu izanak... Badakizu zerk emango lidakeen poz handia niri? Dantzaldia hemen antolatzea. Jende guzti honekin batera... Baina ke ba! Gezurra da gainera... Nik orain egon beharko nuke... maite dudan gizonaren etxeko atea jotzen lentzeria fina jantzita...

Edo masaje ederra jasotzen Brasilgo hondartza batean...

Edo alboko bizilagunen haur txikia musu-truk zaintzen, xamurki, gurasoak zinemara eta trago batzuk hartzera doazen bitartean...

Edo nire aitonari -gaixo dagoen nire aitonari- une goxoak pasarazten nik bakarrik dakidan moduan...

- Ni ez nintzateke orain hemen egon beharko. Nik egon beharko nuke:

Lanean.

Ez. Kirola egiten.

Ez. Larrua jotzen.

Ez. Erosketak egiten.

Ez. Kroketak egiten.

Ez. Langostinoak.

Ez. Nobela on bat irakurtzen.

Ez. Estudiatzen.

Ez. Drogatzen.

Ez. Eguzkia hartzen.

Ez. Kobazulo baten barruan pospolo baten argitan zure begi nini aratzak arakatzen.

Ez. Nik egon beharko nuke besteekiko zazpi minutu aurreratuta. Edo izpi paralizatzaile bat eduki eta nahi dudanean mundua zazpi minutuz gelditu ahal izatea. Eta bentaja horrekin jokatu.

Ez. Bentajarik ez dut behar nik. Nik behar nuke emakumezko gorputza batean bizi une hau, eta gero naizen honetara itzuli.

Ez. Hobe emakumezko geratu eta orduan emakume bezala ni bezalako gizon bat ezagutu eta elkarrekin maitemindu eta nire superEgoa indartuko luketen hiru seme-alaba maitagarri izan. Edo zazpi.

Ez. Nik egon beharko nuke Txinako Harresiaren zeharkaldi osoa egiten, Marina Abramovitx eta bere laguna bezala. Marina Abramovitx artista bat da eta garai batean lagun batekin batera egiten zuen dena: lana, maitemina... dena. Egun batean ordea elkarrekikoa uztea erabaki zuten. Orduan bakoitza Txinako harresiaren mutur batera joan zen. 21.196 kilometro daude punta batetik bestera. Egun eta ordu berean oinez hasi ziren. Harresiaren zeharkaldi osoa egin zuten kontrako norabidean. Hala, erdiko puntu batean elkartu, elkar agurtu, eta tipi-tapa bakoitzak bere bidea jarraitu zuen harresian aurrera. Zeharkaldi hori egiten egon beharko nuke nik; baina norekin? Zuekin, ikusleekin. Hala gertatzen ari da benetan: Zuek mutur batetik zatozte eta ni beste batetik, elkarrekin igaroko dugu ordubete pasatxo, eta gero nork bere bidea hartuko du. Eta ziurrenik ez gara berriz ere inoiz elkartuko.

Ez. Elkartuko gara. Geratuko gara elkarrekin egoteko, trago batzuk hartzeko, elkarrekin afaltzeko, banan-bana zuotako bakoitzarekin afari intimoa egingo dugu. Ondo antolatuta. Gaurtik hasita, adibidez, ni libre nago urte osoan. Eta bakar-bakarrik. Orduan, adibidez, bihar zurekin geratuko naiz, eta etzi zurekin. Etzidamu zurekin. Zurekin noiz? Zure telefonoa emango didazu? ...bai. Geratzeko, klaro. Deituko dizut. Deituko dizuet. Zin dagizuet. Afari intimoa egingo dugu eta gero... nahi duguna! Denbora guztian! Zurekin ostegunean, bale? Telefonoa? Deituko dizut. Apuntatu duzu zuk nirea? Bueno, zu lasai, deituko dizut nik... Ze ondo, guztiakin geratzeko denbora daukat...

Ez. Ez da halakorik gertatuko. Famatu egingo naiz eta hurrena elkar ikusten dugunean ez dizuet aurpegira ere begiratuko. Zuen telefono zenbakiak sudokuak betetzeko erabiliko ditut. Hegazkinetan noala ozeano gaineko zeruetan. Glamourrez kirastuta zeharo.

Ez. Nik egon beharko nuke hilda eta beste norbaitengan berraragiztatua, zugan berraragiztatua. Ez. Hobe intsektu batetan berraragiztatua. Euli batetan edo. Ez, kuku-kume batetan hobe. Barkatu, ez daukat ezer zure kontra.

Ez. Ez daukat eskubiderik. Nik kartzelan egon beharko nuke. Baina ez dizuet kontatuko zergatik. Norbaitek asmatzen baldin badu urdaiazpikoa oparituko diot. Nirea ez, txerri batena hobe.

Ez. Nik urbanizazio eraikin berrietan egon beharko nuke dinamita kargak jartzen, eta ez zuen burmuinetan dinamita kargak jartzen. Nik egon beharko nuke elizak okupatzen kultur areto libreak egiteko. Kuarteletan masaje tailerrak ematen. Enpresatako jolas-orduak dinamizatzen. Munduko pankartarik handiena Euskal Herrian eraikitzen Guinness-ean sartzeko. Eta zer jarriko nuke pankartan? Zerbait makabroa: Apurto telebistak! edo Gora munduko gizajo guztiak! edo halako zerbait...

Baina guzti horren trukean hemen nago, orain.

IKASTOLAKO LAGUNAK TOPATZEKO ESTRATEGIA BAT

Noizean behin ikastolako lagunen burutazioak etortzen zaizkit. Ametsetan batez ere. Halako lekutan aurkitzen ditut edo halako harremana daukagu... Eskolakide gehienak ez ditut behin ere ikusi azken 15-20 urteotan. Baina asko gogoratzen ditut. Asko. Guztiak batuko balira multzo handi samarra osatuko lukete. Manifa on bat. Harremana guztiz galdua dugu, baina lagunak gara hala ere. Nik ez dakit ezer haiei buruz. Hil diren, ezkondu diren, antipodatan bizi diren, ez dakit ezer. Non nago ni eta nun dago haietako bakoitza une hontan bertan! ze itxura ote duten! Baina... zerbait gertatzekotan... ez dakit... zerbait... badakit HOR EGONGO DIRELA.

Beti pentsatzen dut igual baten bat etorri dela gaur hona Ganorabakoen funtzio hau ikustera. Eta funtzio ostean 20 urtez elkar ikusi gabe egon ondoren 5 minutuko astitxo bat elkarrekin emango bagenu... bakardadean... hor zer gerta liteke? ze magia dago? zenbat irudi agertzen dira... ze, hor dena batzen baita... zeren, une hori gertatzen bada zer izango da: orainaldia? iragana? iragana eta orainaren arteko zubi modernoa? etorkizuna? balizko etorkizuna?

Guai egongo zen orain norbait azaltzea... edo gero funtzioa bukatzerakoan kamerinoan...

Baten batek ere jolastu lezake egoera eta nahiz eta ia ziur egon eskola berdinerara joan ez ginela (holako gauzak maiz *notatu* egiten dira!), ba igual pertsona lirain batek kamerinora etorri nahi du eta zerbait asmatu nirekin egoteko, eta horrela bidea eskaintzen diot... *en fin!*

Puntazo bat!

Baina, bueno, bestela, imajinatzea hori gerta leikela... hori bakarrik ja guai dago...

DENAK (*publiko artean ibiliz*):

- Zu zara... Maiteren laguna! ...ondo izan!
- Zu zara... Amaiaren laguna! ...ondo izan!
- Zu zara... Iñigoren laguna! ...ondo izan!
- Zu zara... Anjelen laguna! ...ondo izan!

- Zu zara... Jonen lehengusua! ...ondo izan!
- Zu zara... Arantzaren laguna! ...ondo izan!
- Zu zara... Itziarren semea! ...ondo izan!
- Zu zara... Aitorren laguna! ...ondo izan!
- Zu zara... Mikelen laguna! ...ondo izan!
- Zu zara... Zure autoaren laguna! ...ondo izan!

HEROIAREN KONTUAK

- Zu ez al zara heroia?
- Ez, ni ez naiz inoren heroi, ni arrunt taldekoa naiz.
- Baina zu ez al zara Ulises Pena?
- Bai, eta zer?
- Orduan heroia zara.
- Eta zer egin behar dut ba?
- Ibili, bilatu, bizi, galdu, berreskuratu, urrundu, borrokatu, besteak askatu, altxorak bilatu eta hurkoekin banatu, lagunak galdu noizbehinka, kateatua izan, ihes eginez askatu, ezinbestean bizirik jarraitu, eta horren jakitun izanik abenturazale ibili munduan gora eta behera... eta azkenean itzuli
- Heroi klasiko bat beraz.
- Bai, mundua ez da horrenbeste aldatu, azalean bestelako itxura badu ere.
- Baina ile orrazkera honekin...
- Azaleko kontuak.
- Gurasoengandik jaso dudan heziketa aurrerakoia...
- Azalekoa ere. Beti izan dira bai bortizkeria, bai bakezaleak, beti izan da bidaiari jendea eta beste batzuk etxekoiak. Estetikan eta higienean aldatu gara, genetikan ezer gutxi. Noiz abiatuko zara, Ulises?
- Arrunt taldekoa naiz ni, gurasoak helenismo zaleak izatea gauza bat da eta izendapen horren poderioz ni heroi izatea oso gauza bestelakoa.
- Ezetz ba, konturatuko zara ezetz, zure istorioak interesatzen zaizkigu, gizateriari interesatzen zaizkio, zure kontakizunak giza-ondare garrantzitsua dira, tori grabagailu hau, zoaz, eta graba itzazu ikusten dituzun gauzen kontakizunak, itzuleran ikusiko dugu zer egin materialarekin.
- Berrito esango dizut: Ni ez naizela inongo...
- Zoaz!

- **ISTORIO HAU ONDO HASTEN DA.** Ulises Penak esnagailuaren deiari doi-doi erantzun dio eta eskumako hankaz altxatu da ohetik. Egunsentia bere horretan dabil eta lehen printzak ikusten ditu. Egun zoragarria. Ulisesek bizitzeko darabiltzan fundamentu guztiak janzten ditu goizeroko erritual guztia egiten duen bitartean. Txiza, dutxa, kafea, ogi txigortua, mermelada... Kotxea hartu eta lanera abiatu da. Errez aurkitu du aparkatzeko lekua. Autotik ateratzean lagun gerlari bat aurkitu du, errealitatearen aurkako gerran dabilena, arku eta guzti bizkarrean, bizarra egin gabe, alkandora irekia, hotzik ezagutzen ez duen gerlaria, gure gerlaria, gerlari aparta, maitagarria zeharo, bihotzeko laguna, hamar bat urtetan ikusi gabea. Pozten da Ulises. Besarkada estua eman eta bestea mintzatzen hasi zaio, tinko. Laburbilduz, hau esan dio:

-Iritsi da eguna, Ulises, aspaldi espero genuen eguna da gaur. -Ulises harrিতта zeharo- Iraultzaren eguna da gaur, zure bila nator, gudari guztiok bat egitera goaz, aspaldi adostu bezala. Guzti honi buelta emango diogu behingoz.

Ulisesek iskin egin dio:

-Horiek aspaldiko kontuak dittuk, motel, ze mundutan bizi haiz ba! Lanpetuta nebilek ni orain. Ezin diat hi eta hire matxinadaren alde ezer egin.

Korrika joan da. Ulisesek lanera heltzea lortu du beraz, jefea baino lehenago. Une hontan hankaz gora ditu eskema guztiak. Zisko egina dago. Botaka hasi da. Txarrena, ez dakien zerbaiti huts egin izanaren betirako kondena hori. Komunera doa. Bulegoko komun ziztrinean amaitzen da istorioa. TXARTO AMAITZEN DA.

- Beste bat: **PELIKULA HAU TXARTO HASTEN DA.** Protagonistari ondo zihoakion dena baina bapatean arazo batzuk agertu zaizkio. Konpontzen ahaleginduko da eta bitartean gertakizun paralelo batzuk kontuak zaildu egiten dizkiote. Horrenbeste trama paralelo dago munduan... Azkenean nola-hala protagonistak arazoak konpontzen ditu eta nolabaiteko zoriona aurkitzen du. ONDO BUKATZEN DA. Musuren bat ere tokatuko zaio, agian, txirrindulari garaileei bezala. Istorio honetan berdin dio protagonistak bidean eraildako pertsonak etorkizunean ezinegon emozional eta intelektual itzela sortuko badiote ere, eta pisu-bola hori nola eramango duen. Berdin da ere bere musu-bikotearekin batera irudikatutako paradisu hori hurrengo hilabeteetan infernu bihurtuko den ala ez. Istorio mota honetan berdin da gizonak emakumea noizbehinka jipoitzen duen ala ez. Baina beti ere ONDO AMAITZEN DA FILMA.

- Beste bat: **ISTORIO HAU TXARTO HASTEN DA.** Martinek zubi baten azpian kizkurtuta igaro du gaua. Amesgaiztoak, gosea eta hotza pasa ditu besteak beste. Orain Martin eraikinaren teilatura igota dago eta bitan pentsatu gabe bere burua botatzen du. Txikitatik amestutako gauza. Hegan egitea. Inoiz parapenterik ezin izan du probatu. Airean dagoela irribarre handi bat dauka aurpegian. Hau da istorioaren bukaera, hegan modukoa besoekin egiten eta bere etxeko bizilagunei leihotik barrena begira. Pozez txoratzen. ONDO AMAITZEN DA istorio hau ere, beraz, hementxe bertan.

- **ISTORIO HAU ONDO HASTEN DA.** Hilketak batekin hasten da. Norbait hiltzen dute.../... Moralki ez dirudi oso zuzena hilketak batekin hastea ondo hastea dela esatea, baina istorioari komeni zaio. Hilketak bat badago istorioak engantxatu egingo du entzuleen % 95 inguru. Asmatu beharko da nor den hildakoa, nor hiltzailea, eta batez ere zergatik hil duten eta ea harrapatuko duten. Askok gustatzen da honelako istorioak. Beraz, ondo hasten da. Baina istorio labur hau txarto amaitzen da, beraz hainbat aukera agertzen dira norabidea aldatzeko:

A. Hildakoa ez da gizakia, animalia baizik. Kito arazo morala eta delitua. Bai, baina istorioak interesaren erdia eta audientziaren gehiengoa galduko luke. Ekoizleak bigarren orrialdea irakurri orduko paperontzira botako du gidoia.

B. Hildakoa, pertsona bai, baina gaizkile hutsa zen, eta istorio honetako guztiak daude horretan ados. Inongo lagunik ez zeukan tipo ankerra eta zikoitza zelako. Istorioa ondo hasi arren ez dago istoriorik beraz. Edozeinek hil zezakeen eta inork ez du justiziarik eskatu. Txarto amaitzen da, interesik gabe.

C. Hildakoa oso gaixorik zegoen eta heriotza eske zebilen aspaldian. Bere sinesmenen arabera, bestelako izaki bizidun batetan berraragitutako da orain eta horrek poztu egingo du hasieran, baina berehala konturatuko da bizimodu are aspergarriago batean jausi dela. Gatibu jaiotako dortoka bat da orain.

GANORABAKO BATEN BAKARRIZKETA:

- Egia esan egia handien inguruan eraikitzen da gure mundua.

Baina hori gezurra da,

egia esan gure mundua ez da telebistako irudietan agertzen den mundu bera.

Baina hori gezurra da,

egia esan mundua ez da mundua bera, esaldia esaten bukatu dugunerako bestelakoa baita.

Baina hori gezurra da,

egia esan gauzak beste era batera ikusten ikastea bizitza oso baterako lana da.

Baina hori gezurra da,

egia esan lan bezala ikusten ditudanean gauza guztiak izorratzen zaizkit

Baina hori gezurra da,

egia esan izorratzen nauena neure buruari jartzen dizkiodan itxaropenak zeintzuk diren ez jakitea da.

Baina hori gezurra da,

egia esan ezjakintasunarena oso sentimendu hedatua da gaur egun.

Baina hori gezurra da,

egia esan gaur egun errealitatea pornografiaren parekoa da: desioa-salmenta-isurketa-desioa ziklo maskulino hori.

Baina hori gezurra da,

egia esan ziklo maskulino hori mundua ulertzeko nahiko modu hegemonikoa bihurtu da.

Baina hori gezurra da,

egia esan *hegemonien* eta *homogenien* arabera ondo uler daiteke gizarte modernoa. Heterogeneo izateko daude artistak, eta geroz eta babesgabeagoa zaie eremu desokupatu hori.

Baina hori gezurra da ere.

Bai. Baina egia esan behar badizut ez dizut esango zer egin behar duzun.

Eta hori ere gezurra da... Eta abar...

AUSENTZIATIK HONA

- Ausentzia mota batetan zaude
ez egote ez izate kanpoan izate
urruntze aldentze urrunaldi batean
nahiz nik erraz sumatu dezakedan ondoan gaudela
baina zu hor falta horretan gabezia hortan
ez egote ez izate kanpoan izate.

Hitz beteekin ahalegintzen naiz zu nigana ekartzen
zure arreta, zure kasua ala zure jaramona nireganatzen
zure kortesia gutxienez.

Beste egun batzuetan ez baina gaur behar dut adi nazaten,
adi nazazun.

Tomate, sandia, bihotza...

Hitz beteekin esaten dizut.

Urez betetako hitzekin

euria, malkoak, tea esne ta eztiarekin.

Oxigenoz betetako hitzekin

birika, airea, bizitza, maitemina.

Orduan zu, bakarra, politki

jaitsi eta musu eman didazu

hitzik gabe.

MIRILLARENA

- Hiltzailea aldameneko atean bizi da
ez dakit zer edo nor hil duen baina badakit bera dela
eta aldameneko atean bizi dela
maite dudala ere badakit
beti atsegin izan ditut *femme fatale*ak pelikulatan
eta pelikula hau ondo ondoan daukat
errealitateak fikzioa hobetzen duela ondo dakit
bi ate daude errealitate honetan
bi ate hiltzailea eta nire artean
ateetako bat irekitzen duen giltza hiltzaileak dauka
bestea nik
bi ateak aurrez aurre daude eta behatxulo edo mirilla bana dute
nik hiltzailea zelatatzen dut mirillatik maite dudalako
berak ni zelatatzen nau hiltzaile delako
ez dakit egunen batean osoki maitatu ahal izango dudan
edo berak osoki hilko nauen
oraingoz pixkanaka maitatzen gara
pixkanaka hiltzen gara
mirillatik
nire atea zabaltzen dudanean ez du hiltzaileak berea inoiz zabaltzen
baina bere hiltzaile izpia botatzen dit mirillatik ondo aski nabaritzen dut
nik hori
atarian zarata aditzen dudanean mirillatik maitasun izpia botatzen diot
eta berak jakin badakien arren ez dakienarena egiten du nik bezalaxe

bakoitzak bere bizitza dauka eta bere atea
beti daukagu mirilla bat tartean
beti daukagu hari bat lotzen gaituena
baina haria bera onartezina da lotsagabea
mirilla zelataria salatario sekretuz jantzia
paretan ate bat atean zulo txiki bat alde batean bera bestean ni
elkar ezagutzen dugu baina ezin dugu onartu
ezin diot poliziarik ez inori aitortu hiltzailea dela
maite dudalako
ezin diot maite dudala aitortu ezagutzen ez dudalako
ezin dut ezagutu hiltzailea delako
ez dakit zergatik zelatatzen nauen berak
akaso hiltzailea delako
akaso maite dudala badakielako
akaso berak maite naudelako eta
beraz
hiltzailea ni naizela uste dudalako
pelikula honetan.

ZENTSURADOREA

GANORABAKO bat geldi-geldi eta lasai-lasai geratzen da erdian tente. Beste bi jartzen zaizkio aldamenean eta ez diote mugitzen uzten. Batak mugitzen hasten den aldiro hegoak mozten dizkio sistematikoki kolpeak joz, besteak honakoak esaten dizkion bitartean:

- Nora zoaz!

Ez haurrik bortxatu!

Ez inori labanarik sartu!

Ez atera 200 armiarmen kutxa!

Ez bota harririk jendeari!

Ez hartu ezpatarik!

Ez egin harakiririk!

Ez egin kristalak puskatzearen *eszenita* hori!

Ez zaitez drogatu!

Ez ikutu errebolberra!

Ez daukagu segururik!

Ez bota tturik jendeari!

Ez hasi orain kanpaina politikoa egiten!

FABOREZ!

- Autobuseko txoferrari ZERA esan diot: Itxoin pixka bat, mesedez, tximeleta baten hegoen soinua grabatu nahi dut sortzen ari naizen kanta baten barruan sartzeko.

- Barkamena eskatu nahi dizuet.

Barkamena, aurreko eszenan izan dudan portaeragatik. Ez daukat zuei hori egiteko eskubiderik eta barkamena eskatu nahi dizuet horregatik. Pixka bat nahastuta nenbilen gauza asko neuzkalako buruan eta horregatik agian *rollo* txarrean nengoela iruditu zaizue, baina jada pasatu zait. Ez dut nahi inork pentsatzea: jo, tipo horrek a ze rolo txarra utzi didan...!

Nik nahiko nukeena da zuek pozik ateratzea hemendik. Halako punttu bereziarekin baina zabaltasun sentsazio batekin edo.

BAINA GUSTOKO NUKE GAUZAK FUNDAMENTUZ EGITEA.

- FUNDAMENTUZ??

- Hara:

Nik A pentsatzen dut.

B esan didate

baina Nik A pentsatzen dut.

C esan didate

baina Nik A pentsatzen dut.

Orduan D, DD, E eta F esan dizkidate

baina Nik A pentsatzen dut.

G, H, I, J, K eta L esan dizkidate

baina A pentsatzen jarraitzen dut Nik.

M, N, O, P, Q, R, S, T, TS, TT, TX, TZ, U, V esan dizkidate hurrenez hurren

Nik A pentsatzen dut.

W, X, Y eta Z esan dizkidate

A. Nik, A.

A esan didate.

Ados: A.

Akordiora heldu gara.

GANORABAKOEN DIARIYUAK & ELDARNIYUAK

LEHEN GANORABAKOAREN DIARIYUA:

Bizitzaren Fundamentuak:

Aitona-amonen generaziokoak: Familia, Jainkoa, ondasunak, Lege Zarra.

Gure generaziokoak: lana, bikotea, etxea, lagun koadrila. Familia.

Niri ze axola dit honek? nire fundamentuak ez dira holakoak:

Ardurez jositako pisu bolarik ez dut nahi nere bizkarrean.

Motxila eramatekotan, zer sartu bertan.

MOTXILAN SARTZEKO MODUKO GAUZAK:

1 Linterna, jertsea, txokolatinak, ura, gazta, ogia, zahatoa, kaskoa.

2 Koloretako lapitzak, karpeta gogor bat paper zuriekin, marrubiak, melokotoi zukua, tripi bat.

3 Argazki kamara bat, tripode bat, 3 peluka, 7 traje estilo desberdinekoak, mendiko botak, perretxikoak biltzeko otzara.

4 Liburu potolo bat, tabakoa, aulki tolesgarria, bokata bat, ura, errebolber bat, uniforme bat.

5 Altxor kutxa bat, pala ttiki bat, bi mapa, txanpon bat.

Fundamenturik ez dut. Taupadak dauzkat.

BIGARREN GANORABAKOAREN DIARIYUA:

Jubilatuen bizimodua daramadala pentsatzen du jende askok

eta bakarren batzuk esatera ere ausartzen zaizkit, nire adinarekin bestelako gauzak egin beharko nituzkeela uste baitute.

Baina nire buruari esaten diot jubilatuen bizimoduak errespetu osoa merezi duela, ze bizitza osoan egin nahi izan dutena deskubritzen ari baitira

eta beren desioak asetzen

baldin eta geratzen bazaizkie.

Aurretik kabroi bat bezala lanean alperrik galdutako urte guzti horietan egin ez dutena egiten ahalegintzen dira eta sarri beranduegi heltzen dira estazio horretara euren trena aspaldi joan baitzen.

HIRUGARREN GANORABAKOAREN DIARIYUA:

Ezohiko eta aparteko gertakizunak maite ditut eta ene herrian egun guztiak dira igualak. Eguraldia bakarrik aldatzen dela esango nuke. Adinarekin herritarren txundimen gaitasunak ospa egin eta beste errealitate batera pasatzen dira. Soilik batzuetan garai batean izan zirenak gogoratuz sartzen zaie malenkonia sarkorra azalean barrena. Izan zitezkeenaren saudade umel hori, itsasora begira adibidez. Horregatik Athleticen partidua autoko irratian ozen itsasorantz begira aparkatuta dauden auto horietan. Igandea pasatzeko moduak, saudadea distraitzeko moduak.

BIGARREN GANORABAKOAREN DIARIYUA:

Gizon edadetu batek senideen bisita hartzen du ospitaleko gela batean. Saiatzen da haiekin egoten, haiei plazera emateko, baina egia esan telesaila ikusten ari zen telebistan, oso gustura, famili baten istorioak kontatzen dituen telesaila, egunero ikusten duena, eta pertsonaia guztien trikimailu guztiak segitzen ditu gertu-gertutik, pena handia emango lioke gaurko kapitulua galtzeak, kostatu egiten zaio senide ezeroso horiekin lasai egotea. Guztia batera egiten saiatzen da, lehen oso ondo egiten zuen, elkarrizketa eta telebista, biak batera, baina buruak jada ez dio ematen. Beste ordu batean etortzea ere bazuten,

baina justu orain etorri beharra. Bai, berak nahiago luke telesaila lasai eta bakarrik ikusi. Hau guzti hau senideei azaltzen die. Ulertzekoa da. Badoaz lasai.

LEHEN GANORABAKOAREN DIARIYUA:

Egun berri bat hasi da eta nik aurrera jarraitzen dut nirean. Eta berak ere aurrera bere loan, loaren eskuetan baitago, eta ni jakin-minarenean. Eta ez daukat burutazio berezirik, eta ez daukat une honetarako musika aproposik, ez baita egundaino halako musikarik konposatu, eta munduaren funtzionamendua aditzen dut soilik, eta ni nirean, norabide jakinik gabe, zerbait berria aurkituko dudalakoan, nire itzal-aldean edo egunerokoan funtzionarazten nauten mekanismoen artean murgilduta, erdibide gozo batean.

Bizirik sentitzeko strategiaren bat ote den galdetzen diot nere buruari baina hori tranpa bat da, erori baino lehen aurreikusten dudan tranpa bat, argudiorik ez baitut behar nirean bizitzeko. Errutinak maite ditut, baina baita sukarrak eskaintzen duen ELDARNIOA ere, eldarnio gozoa baita beste guztien martxa kanpotik behatu eta norbera geldirik dagoela sumatzea.

Egongo ez banintz bezala sentitu nahi dut kanpokoentzat. Gaur ez dut ezer erosiko egun osoan eta horrek desagertze bidean kokatuko nau kontsumoaren gizarte honetan.

HIRUGARREN GANORABAKOAREN ELDARNIYUA:

Zigarro bat erreko dut azkenengo zigarroa balitz bezala. BETI BEZALA. Erretzeak hil zaitzake. Ala biziberritu. Beharbada ez da izango gaur erreko dudan azkenengo zigarroa baina hori ez dut jakingo hurrengo zigarroa erre arte. Edozer gerta liteke. Heriotza posible denean biziki gozatzen ditugu gauzak. Horrela hezi gara ezinbestean. Bestela, bata bestearen ondoren egiten ditugu gauza guztiak, halabeharrez bezala. Zigarroa ezpainetan jarri eta "Emango didazu argia, mesedez?"

LEHEN GANORABAKOAREN ELDARNIYUA:

Elizan mundu guztiak aldamenekoari bostekoa ematen dion momentu hori gustatu zait beti. Ateoa sentitu arren kristaua naiz ezinbestean, beste horrenbeste gauza naizen bezala: Emea, txuria, euskalduna, iletsua... Ondorio kaltegarri asko dauzka horrek, baina baita une ederrak ere. Eskua ematearena gustatzen zait, batez ere ezezagunekin gertatzen zaizunean. Paktu bat dago atzean. Normalean ez dira halako gauzak egiten. Ibili hiriko kaleetatik jendeari bostekoa eman eta hitz atseginak eskaintzen, eta zer esango du jendeak? Tipo hau Hare Krishna izango da, edo mormoia, edo auskalo ze sektatakoa. Intentzio onik ez du izango, seguru. Atzean pakturik ez dagoelako.

Ama lurra maite badut,

...une honetan ama lurra estuki besarkatzeko gogoia etortzen bazait, zergatik ez dut ba egingo! zoriontsu banaiz eta hori besarkada batez adierazi nahi badut (*biluzten ari da*) zergatik ez dut egingo (lurrean ahozpeztan dago) izaki bizidun eta bizigabe guztiak -pertsonek barne- maitatzen ditudalako egiten dut hau,

maitasun itzela sentitzen baitut,

noren aurrean justifikatu beharko nuke nire burua?

armariotik ateratzea?

ze armariotik atera behar dugu?

egurrezkoa da? burnizkoa? buztinaz egindakoa?

eta zein eskuk haztatutako buztina da hau? zein eskuk eraiki dituzte gure buztinezko armairuaren paretak? eta nola demontre irekitzen da buztinezko atea? buztinezko giltza batekin akaso? zer dago kanpoan? zer dago mirillaren beste aldean?

BIGARREN GANORABAKOAREN ELDARNIYUA:

Etorkin bat naiz orain. Europar Planet hontara heldu berri den estralurtar moduko bat. Ez dut kaletarren hizkuntza berbera

menperatzen eta ez dut inor ezagutzen heldu berri naizen lur puska honetan. Hiru egun luze eman ditut honaino heltzeko eta herioren aurrez-aurre ikusi dut neure burua bidaiaren minutu guztietan. Harrapatu banindute ziega ilun batean hilko zen naizen hau, eta istripuren bat gertatuz gero errepide ala ozeano bazter batean agertuko ziren nire haragi-hezurak. Baina salbu naiz. Honaino iritsi naiz eta pozarren nago. Ekipajerik ez dakart batere eta ez nau kezkatzen. Hobe arin ibiltzea. Sos bakar batzuk dauzkat eta listo. Lagun berriak egiteko irrikitan nago. Emaidazu eskua, nire laguna izan nahi al duzu?

LEHEN GANORABAKOAREN ELDARNIYUA:

Ez gara puntu horretan bizi. Ez gaude hor. Azalaren kodeak leku sekretutan oparitzen dira soilik, ezin duzu ezezagunak besarkatzen ibili. Espero dezakezuna baino haratago doa *kastrazioa*. Tentazioa bai, nonahi dago. Baina kontakturik gabe. Okelaren plazerak begiradaren bitartez asetzen dira. Zer darabilzue azalean? Ze grasa, ze tentsio, ze pozo da hori?

Poliki dator eguna. Politki.

BIGARREN GANORABAKOAREN ELDARNIYUA:

Estrainioak gara. Plastilina puska batez ezagutzen ditudan pertsoneri forma ematen saiatzen naiz. Lagun batengan pentsatzen hasi eta haren oroimenak bueltaka ditudala atzamarrak bere kasa ari dira moldeatzen. Asko kontzentratzen naiz pertsona horrengan. Behin-behineko oroimenak lehenik, zaharragoak pixkanaka, haren haurtzarora heltzen naiz eta gero une honetan bertan irudikatzen dut pertsona hori, non egongo den, zertan arituko den: lo, lanean, jaten, norbaitekin solasean... Halako batean heltzen da une bat non pertsona horren esentzia ulertu dudan. Orduan nire eskuen mugimenduen kontrola berreskuratu eta plastilinatik aldentzen ditut. Plastilina zati horretan lagun horren esentzia bildu dut. Beste lagun eta senideekin ere egiten dut prozesu bera, banan-banan, plastilina zati desberdinetan. Egunak ematen ditut lan horretan. Elikatzea ere ahaztu egiten zait. Guztiak

dauzkat orain mahai gainean. Plastilnazko 56 forma. Lagun eta senideak. Ez nago bakarrik jada.

KORRONTEAK

- Itsas ertzean nago, Lekeitioko Karraspioko hondartzan, irla inguruko uretan ahoz gora etzanda.

Korronteak eraman nazan uzten dut nire burua uretan lasai fresko fresko egonean egoten.

Korrontea dabil eta pixka batean utzi egiten diot itsasoak eraman nazan berak nahi duen lekura.

Utziko banio, itsasoak bakarrik dakien leku horretara eramango ninduke eta han aurkituko nituzke mendeetan zehar itsasoak eramandako gauza eta giza guztiak.

Nora abiatzen dira indarririk gabe geratzen diren gauzak eta gizak, itsaso edo haizeak eramanak?

Uretatik ateratzen naiz.

Mareak ekarritakoak begiratzen ditut, uhin lerroa markatzen dutenak hondarrean. Egur puskak, karraskelak, alga zatiak, giza hondakinak, txori hilotz pare bat. Guztiak indarge honaino iritsi den olatua lez.

Ni neu lez, oheratzerakoan.

HIZLARIARENA

GANORABAKO batek hitzaldi bat emateko asmoa agertzen du, eta maisuz mozorrotzen da. Aretoko giroa bere gustura jartzen duen bitartean, inork ez baitio laguntzen, *Mortadela Txerriak* (beste *GANORABAKO* bat da, baina hau ere mozorrotuta) bere aurkezpena egingo digu ia-ia konfidentzia moduan.

MORTADELA TXERRIA:

- Gaia geo-in-ge-nia-ri-tza du.

Neurri handiko teknologiaren bitartez planeta baten egoera globala aldatzeko gai dira geoingeniariak. Edo horretan saiatzen dira. Berak kontatuko digu ondo. Asko daki hortaz. Antza, errusiarrek 1993an 25 metroko ispilu bat jarri zuten espazioan satelite bati lotuta eguzki izpiak Siberiaraino isladatzeko. Bidaian kontatu dit. Gutxi dakigu guk baina oso zientzia landua da geoingeniaritza hori. Adibidez: 2005eko martxoan aurora boreal artifiziala sortzea lortu zuten Ameriketako zientzialari batzuek. Mikroorganismoak sartuz, Artizarreko klima aldatzeko egitasmoak ere badaude, edo Lurraren orbita aldaraztekoa hemendik bilioi bat urtera eguzkitik urrundu ahal izateko, ez erretzeko. Horrelako gauza pila bat gauza...

Une batean maisuak mikrofonoa probatzeko zera esaten du:

MAISUA:

- Ene barruan dauzkat hainbat ezkutuko bidaiari, nik gonbidatu gabe igo direnak nire untzira.

Prestaketekin jarraitzen du inork laguntzen ez diola. Zerbaiten bila dabil. Bitartean Mortadela Txerriak aurkezpenarekin jarraitzen du, mikrotik orain

MORTADELA TXERRIA:

- Bostondik etorri da gaur. Nik jaso dut aireportuan. Askotan joaten da Ameriketara. Woody Allen ere ezagutzen omen du... Mundu osoan ibilia da, eta aditu handia da. Bere herrian GANORABAKO deitzen diote besterik gabe...

MAISUA (*Mikroa kenduz*):

- Hasiko zara halakoak esaten eta gero zure trasteak lekuz aldatzen hasiko zara ia-ia konpultsiboki, eta "Hau nahi dut" esan nahiko zenuke baina ez duzu topatzen.

Eta hasten zara harat-honat.

Eta beldur gehienak hasten zaizkizu etortzen.

Baina zuk jaramonik ez egitea erabaki duzu eta aurrera jotzen duzu.

Gustuko uste duzuna hasten zara egiten.

Baloratzen duzu hau.

Baloratzen duzu bestea.

Orokortasunetan galtzen zara.

Albisteak telebistan gertatzen dira.

Kontatzen dizute uneoro hau eta bestea.

Irudiak. Goizaldeko 3rak dira eta orain neska bat ibiliko da esaten kate pribatu horietako batean jendeak deitu egin behar duela. Zuk deitu egin behar duzula. Nik deitu egin behar dudala. Letra batzuk daude laukitxo batean barreiatuta banan bana eta bakoitza alde batera begira. Sei letra. Horiekin hitz bat osatu beharra dago. Eta emaitza dakienak deitu. Letrak dira F I E S T eta A . Horrela esanda erreza da, baina A T E I S F esaten badut, e... Eta hara! badakit erantzuna (poz ttikia ematen dit honek).

Festa bai nik!

Gauza batzuk ematen dute poz ttikia eta poz handia beste batzuk.

Eta ez dut inoiz deitu baina orain egingo dut. Gero Tarotera deituko dut. Harrigarria benetan nigan, ezta? Baina hori egiteko gogoia sartzen bazait egingo dut. Eta dirua soberan banu dirua gastatzen emango nuke denbora guztia. Zuk ere egin dezakezu. Atera daukazun diru guztia bankutik, txanponetan eskatu leihatilan (Poltsa bat eraman, noski, txanponak sartzeko) eta txanpon guzti horiekin joko-aretora sartu eta

eskuarekin banan-bana txanpon guztiak hartu eta makinetan sartu. Frutak.

Koloretako frutak.

Diru guztia xahutu duzunean eskatzen hasi: familiari ahal duten guztia, dirua daukaten lagunei dirua eskatu, atzeratutako zor guztiak banan-bana kobratu, kalean eskatu, eta ateratako guzti hori ere txanponetan aldatu eta jokaetxea horretan xahutu. Gero hondartza bateraino oinez joan, dagoen distantziara dagoela, eta iristerakoan bainu on bat hartu. Gutxienez.

Buuu-ffa!

DENBORA SOBERAN DUGUNEZ, GUZTIA DORPEKI EGIN DEZAKEGU LASAI-LASAI

Bokaziozko ofizioak:

- Tostada gainean gurina zabaltzen katedratikoa!
- Peritu kafegilea!
- Laranja-zukugile katedratikoa!
- Holako gauzak, bai...
- "Oso pertsona berezia" esaldia esateko 1000 modu desberdin.

TELEFONO ZENBAKI BAT EMAN DIDATE. NON APUNTATU DUT?

- Pertsona berri bat ezagutu duzu, interesgarria. Oso pertsona berezia. Deitzeko esan dizu, eta bere telefono zenbakia eman. Eta zuk... Non apuntatu duzu?

- Nik buruz gogoratzen ditut beti telefono zenbakiak. Ez daukat nire buruko espazioa beste gauza batzuetan okupatua. Zenbakiak gogoratzeko gai ez bagara zertan da gure memoria!...

- Sakeleko telefonoan apuntatu dut nik. Dei galdu bat egin diot gero hark nire telefonoa ere erregistratuta eduki dezan. Listo. Hekatonbe telefonoide bat gertatzen ez bada behintzat, betirako egongo gara bata bestearen agendan. Zenbat jende kontrolatzen dudan! Ze ondo jendearen agendatan egotea! Ze poza! Bai poza!

- Ni urduri jarri naiz eta ezin izan diot bere telefono berria eskatu. / Liluratuta baina bakarrik geratu naiz, usoak alde eginda. Libre aldeginda. Gaixoa. *Zatoz, laztana, nik eskaintzen dizkizut janaria, ziurtasuna eta kaiola ederra, nire salarako bistekin.* / Total, bere telefonoa edukita ere ez nintzen ausartuko deitzera...

- Papertxo txiki batean... apuntatu dut... gaur goizean eman didaten telefono zenbakia. Beste bakeroetako poltsikoren batean gordeta daukat papertxo.

Bakeroak zikin-zikinak zeuden! Labadora! Ez, ez ditut sartu... Euria egin du goizean eta busti egin naiz, prakak erantzi eta kolgadorean eskegi ditut... Baina ez zen hemen! non zen? Mirenen etxean! Eta Miren Almeriara joan da bazkalostean! Eta Oihane Txaouenera! Eta Ana? Ana Berlinera! Pisua hutsik dago. Eta prakak barruan! Eta katua? Nor utziko zuten katua zaintzen? Rebeca? Emilia? Eukene? Aitziber? Jon Koldo? Andoni? Felix? Katuaren norabidean egon behar du papertxo berreskuratzeko pista fundamentalak. "Katuaren norabidea": Titulo ona dirudi. Beste aukera bat daukat: Leiho batetik sar naiteke, bigarren pisuan da. Edo frenteko bizilagunekin hitz egin eta igual patioetik kolgadorea frentean geratzen da eta kanabera batekin hartu dezaket. Ez dakit frenteko bizilagunek ezagutzen nauten. Baina kanabera bat baneukan! Non egongo da? A, badakit! Badakit nun dagoen! Orduan: Kanabera hartuko dut, frenteko bizilagunen etxeko tinbrea joko dut eta arrantzalea naizela kontatuko diet, patioan arrain ederrak atera zaizkiela behatu dudala eta axola ez bazaie nik arrantzatuko ditudala, eta nahi baldin badute gero erdibana egin dezakegula arrantzatutakoa. Edo udaletxetik bidali nautela arrain madarikatu horiek deusezteko

kanpaina baten barruan. Arrain zikin eta arriskutsuak direla eta umeei kosk egiten dietela kontatuko diet. Baina Mirenen bizilagunek ez daukate umerik etxean. Bueno, baina lagunen seme alabak... Gero, ustekabeen bezala, plastiko zahar bat engantxatzen zaion arrantzalearen plantak eginez prakak eskuratuko ditut kanaberarekin, eta praken poltsikoan aurkituko dut papertxoa, baldin eta bustita egotearren tinta korritu ez zaion... Bueno, baina aurretik tortilla bat prestatzera noa, gose pixka bat edukiko duzue eta. Norena ote zen telefono zenbaki hori!...

- Folio baten goiko aldean apuntatu dut nik gaur eman didaten telefono zenbakia. Folioaren zurtasunean balizko dei horrek eman ahal didan guztia apuntatuko dut. Folio hori karpeta baten barruan dago. Karpeta hori nire mahaiaren gainean dago une honetan. Nere gelan. Nere etxean. Nere auzoan. Nere hirian. Nere eskualdean. Nere kontinentean. Nere munduan. Hemendik ez oso urrun hain zuzen ere.

- Grafiti handi bat egin dut gaur goizean eman didazun telefono zenbaki horrekin. Hainbeste poz zabaldu beharra baineukan! Arratsalderako Udalak borratuta zeukan...

- Boligrafo gorri batez eskuaren alde honetan idatzi dut telefono zenbakia. Begira. Hemen eta orain daukat. Eskuak bi aldiz garbitu arte gutxi gorabehera. Epe hori daukat deitzeko. Txiringittoa muntatu eta gero busti ditut eskuak, freskatzeko batez ere, eta kopeta pixka bat bustitzeko. Berriro eskuak garbitu orduko ez badizut deitu, orduan ez nizula deitu behar izango da...

- Errotuladore potolo beltz batez apuntatu dut argazki baten atzeko aldean. Argazkian biok azaltzen gara sari bana jasotzen.

- Marea beheraz profitatuz, hondar hezean apuntatu dut zure telefonoa pago adar bat erabiliz. Hondartzako kabinatik deitu dizut bost minutu beranduago. Ez didazu telefonoa hartu. Zenbakia ahaztu dut. Marea igo da gero. Hobe da horrela, laztana. Topatzekotan topatuko gara...

- Hamaika leku desberdinetan apuntatu dut nik badaezpada ere. Rotuladore *permanent* bat hartu eta etxeko hainbat txoko aukeratu ditut.

- Sudoku bateko lerro batek dituen bederatzi laukitxoan barruan!

- Pianoaren bederatzi teklatan SOL bemol batetan hasita eskala bat osatuz!

- Logelako pertsianaren bederatzi xaflatan!

- Gaston Bachelard-en "El derecho de soñar" liburuaren 33. (Jesusitoren adina:) orrialdearen beheko partean!

- Telebista pantailaren erdian 20 bat zentimetroko letra bolumendunak eginez Teleberria erretransmititzen zuten bitartean! (Aurkezlea txaketa dotorea eta gorbata jantzita gerritik gora, eta mahai azpian *trajebainuan*! Kriston beroa egiten zuen estudioan! Nire etxean ez.)
- Lababoan eta baineran!
- Etxeko platano guztien azalean!
- Kamerinoan bildutako hauts pilari zure telefono zenbakien forma eman diot!
- Espagetiekin ere gauza bera.
- Papiroflexia bitartez ere lortu dut zure telefono zenbakia lau dimentsiotan altxatzea.
- Baina ez dakit deituko dizudan... Forma interesatzen zait edukia baino gehiago! Artista *kontenporaneoa* naiz ni! Bizi diren munduko artista guztiak bezain *kontenporaneoa* gutxienez!

ZUREKIN EGIN DUT AMETS BART

GANORABAKO bakoitzak publikoko norbait aukeratu, aurrez-aurre paratu eta begietara begiratzuz hurbilean mintzatuko zaio.

- Zurekin egin dut amets bart. Eta orain hementxe bertan zaude nire aurrean. Ametsean honako hau gertatzen ari da, ametsetan beti dena orainaldian igarotzen baita. Unean uneka. Eta ametsetan bezala kontatuko dizut. /

Orain zu gazteagoa zara noski, azkenekoz elkar ikusi genueneko adina daukazu hemen neure ametsean. Zuk 14 urte dituzu une honetan eta nik ere bai, eta energia horrekin sentitzen zaitut. Azal leuna duzu eta begirada garbia. Artilezko leotardo koloretsuekin eta kamiseta urdinarekin. Ilea garbitu berria duzu, gimnasiako klase ostean baikaude. Beste klaserik ez dugu gaur eta libre gara. Eskutik heldu nauzu eta hitz samurrak belarrira esan. Laztan jolasa dugu amets honetan, hamalau urteko laztan jolas trakets samarra, orain ere jendearen aurrean lotsatu samar gaude... (*Ganorabakoa maleta baten barruan sartzen da*).

- Zurekin egin dut amets bart. Eta orain hementxe bertan zaude nire aurrean. Ametsean hau gertatzen ari da, ametsetan beti dena orainaldian igarotzen baita. Unean uneka. Eta ametsetan bezala kontatuko dizut. /

Atzo kalean gurutzatu ginen. Ez dakit zuk nigan erreparatu ote zenuen. Ohartu ote zinen. Baina ni bai. Eta gero gauean nere ametsetik igaro zara, eta zuk orain, une honetan, atzoko adina duzu, ez oraingoa baizik atzokoa, eta nire amets aurrean gara, hirugarren aldia da elkartzeko garena... kanikatan jolastuko dugu? (*peluka bat janzten du*) Ez al dituzu kanikak ekarri?

- Zurekin egin dut amets bart. Eta orain hementxe bertan zaude nire aurrean. Ametsean honako hau gertatzen ari da, ametsetan beti dena orainaldian igarotzen baita. Unean uneka. Eta ametsetan bezala kontatuko dizut. /

Nere idoloa izan zara beti eta zure argazkiak dauzkat nire logelako paretatan paratuta. Zure *gruppie* bat izan naiz eta hainbat eta hainbat kontzertutan ikusi eta entzun zaitut. Telebistan atera zinenean ere bai. Eta nolabait beste aldean kokatzen zintudan beti, goian, argiaren argitan, errepresentazioaren munduan... Baina orain, amets honetan, pertsona normal-normalak zarela ari naiz konturatzen, pertsona arrunta zarela guztiz, eta hasieran hemen zure aurrez-aurre egonagatik sentitzen nuen zirrara hori, belaun-ahulezia, dardara, izerdi tantatxoak tak-tak, hori dena ja pasa egin zait eta ondo sentitzen naiz. Gustura nago zurekin. (*Ganorabakoa lo geratzen da ikuslearen belaunen gainean*).

BUKAERA BAT

Maleta handi bat dago.

Ondoan emakume bat dago maletari helduta.

Tentsioan.

Geldi-geldi.

Orain ez dago tentsiorik.

Maleta barruan gizon bat dago.

Esku bat ateratzen du kremailetatik.

Emakumeak irribarre egiten du.

Gizonak burua ateratzen du.

Emakumeak berehala mikrofono bat jartzen dio hitz egiteko.

Gizonak hitz egiten du.

Gizonak begi biziz mikrofonotik esaten du:

- Egin al duzue inoiz dantzan gorputzeko muskulu guztiak erabiliz?

Maletatik ateratzen da gizona.

Biluzik.

Biek elkarrekin dantzatzen dute, xamurtasunez baina gorputzeko muskulu guztiak erabiliz dantzatzeko kontsignaz.

Nekatu egiten dira oso nekagarria delako intentsitate horrekin dantzatzea.

Gizona berriz sartzen da maletan, mikroarekin.

Emakumeak maleta ixten du.

Gizona mikrotik mintzatzen da, maleta barrutik:

- Arrain bat jan al duzu bizirik inoiz? sesio jarraiko zineman da, ez dugu elkar asko ezagutzen, bistaz baino pittin bat gehiago bakarrik. Ausardiaz gonbidatu zaitut zinera baina zereginak zenituela. Laztan minez ni, zinerantz ni, bakarrik ni, dudatsu Berandutu egin zait pixka bat. Berdin da, bukaeran ikusiko dut filmaren hasiera. Zinean hamabi bat lagun, gehienak filma hiruzpalau aldiz ikustera etorriak, lehen ordutik han, erdi lotan edo. Giro beteranoa, biziosoa, zorua eta paretek osatzen dituzten izkinetan olio beltza pilatzen dutenetakoa. Sesio jarraiko zineman.

Zapaburu laranja gorrixka hankatxo hasi berriekin, lau hankatxo, zapaburu arrain moduko hauek akuario ttiki batean daude, paper japoniarrez paperezaturiko gelatxo baten erdian, zinearen alboetako batean, platea batean, gortina granate baten atzean. Pelikula japoniarra sesio jarraian proiektatzen den artean aukera dago arrain horiek jateko, filmaren irudietan egiten duten bezala. Ikusi dut bik egin dutela platearako bidea. Ni ere altxatu, gortina atzera joan, salabardo ttiki batekin zapaburu laranja gorrixka horietakoa harrapatu eta jan dut bat, bizirik, arrain handiek egiten duten bezala, haiek beti bizirik jaten dute. Nire eserlekura itzuli naiz arraina oraindik ahoan mugimenduak egiten ari, eta nire eserleku ondoan eserita zaude zu. Begiratu xamur horrekin jantzia. Perbertittua jada.

Emakumeak maleta pittin bat ireki eta gizonak burua ateratzen du.

Elkarri begira geratzen dira goxo.

Emakumeak jaten ematen dio leunki.

Mimatu egiten du.

Harreman doi-doia dute.

Emakumeak maleta itxi eta ospa egiten du.

Maleta itxia geratzen da gizonez betea.

Beste bat heltzen da. Maletara begiratu eta hura hartu baino lehen mintzatzen hasten zaio:

- Hara!

Argal argal zaude!
Ilea... edonola daramazu!
Ez diguzu inoiz deitzen!
Bilatu al duzu lanen bat?
Kolare gutti hartu duzu ba azalean!
Jaten al duzu?
Zaintzen al duzu zure bizimodua?
Joaten zara inoiz elizara?
Ze printzipio dauzkazu zuk?
Zertaz bizi zara?
Zertaz biziko zara etorkizunean?
Ez al duzu etxe bat inoiz erosteko asmorik?
Kontuz ibiltzen al zara errepidean?
Behar al duzu zerbait?
Lotsagabea!
Inpresentablea benetan!

Maleta itxia hartu eta badoa.

BESTE BAT: MUNDU BAT DAGO HOR KANPOAN INOIZ KONTROLATU EZIN DUGUNA

Eszena honetan GANORABAKO GUZTIEK parte hartzen dute. Zapi bat daramate buruan lotu gabe baina aurpegia estaltzen diena.

- Badakizu eszena honek ze izenburu duen?: *MUNDU BAT DAGO HOR KANPOAN INOIZ KONTROLATU EZIN DUGUNA*: titulu polita, ze beti nahi dugu dena kontrolatu eta borroka horretan galtzen gara. Hobe genuke beste zerbaitetan aritu. Bizitza jolastea.

- Bizitza jolastea. Baai. Edeerraa. Egiguzu frogapen bat.

Zerbait egiten du jolastuz. Laburra.

- Ezin dut gehiago. Etsi egingo dut bihar.

- Gaur ez?

- Gaur ez. Gaur aurrera jo beharra dago gure ondorengoei mundu hobea uzteko. Euskal Herria altxatzeko, baten batek esaten duen bezala.

- Altxatu? Eta noraino altxatu nahi duzu ba?

- Asko ez. Bihar etsitzera noa, mundua une batez gelditu eta jaitsi egingo naiz, eta ez nuke jaisterakoan minik hartu nahi.

- Jakina. Eta nondik hasiko gara?

- Hauekin, noski, horretara etorri dira. Hemen dugu abangoardiako taldetxoa gure zain. Guk proposatuko diegunaren zain.

- Gure menpe al daude?

- Bai. EZ. Zer da menpean egotea?

- Galdera potoloa. Holakoekin hasiz gero jai daukagu.

- Jaia. Hori abiapuntu hobea iruditzen al zaizu?

- Jakina baietz! Ze Santu ospatzen dugu gaur? ze herri honetan Santurik ez badago ospatzeko jai daukagu.
- Hori duk eta! Taloak ekarri al dituk?
- Sagardoa?
- Kalimotxoa?
- Txistorra?
- Tripiak?
- Tripakiak?
- Topikoak?
- Tipikoak?
- Jai dugu!
- Jai ezaren menpeko gara.
- Tranpa bat.
- Zer?
- Beste bat.
- Baina... hala ere... libro gara beti ere...
- $186 + 12.410 + 8 = \dots 12.604$ egun daramatzat bizirik. Gutxi gora behera guztiak libre pasatu ditut.
- Beraz... 8 urte bisustu, e..? Zortzi aldiz izan duk propinako egun hori eta aprobetxatu al duk?
- Hori. Zer egiten ibili haiz otsailaren 29 horietan?
- Ba, urte bisustuetan olinpiadak egiten dira, ospatzeko. Baina otsailean ez, noski, udan. Beraz udan olinpiadak ikusten egon naiz ia beti.
- Oker zaude.
- Seguru?
- Ez nago ziur.
- Eta otsailaren 29koak gogoratzen al dituzu?
- Jakina baietz! gogoratuko ez ditut ba!:

1976an goiz-arratsaldea jolasean igaro nuen eta 13 hitz berri ikasi nituen. Bazkaltzeko espinakak eman zizkidaten. Hori ezin ahaztu.

1980an bizikletan ererikoa izan nuen eta belaun-ukalondoak ondotxo urratu nituen, baina ez nuen "Antibiotiko" hitza ikasi. "Atlantiko" hitza baizik. Hori bai: amak afaltzeko makarroiak prestatu zizkidan.

1984an sukar-eldarnioan igaro nuen egun osoa, ohean, gustura ordea, eskolara joan gabe, nire burutazioetan.

1988an Gizarteko azterketa izan nuen eskolan eta urduri eman nuen eguna, erreparatzen. Gero 9 bat atera nuen, baina momentuan...

1992an Goizean erdipurdi, baina gero Mainerrekin musuka pasatu nuen arratsalde-gau ederra. Opari, piropo, paripé, pipolino, palomino, emari, safari, musukari, jostalari, nubolari... pozik!

1996an Aitorren laguna nintzen. Aitorren urtebetetzea otsailaren 29an da. Bost urte bete zituen egunean mozkor itzela harrapatu genuen. Itzela. Martxoaren lehena oso-osorik eman nuen ura edan eta edan eta buruko minari aurre egiteko metodo guztiak probatuz.

2000n egun arrunta izan nuen, edozeinek edozein egunetan bezalakoa (Hau gure barne-arauen kontra doa zuzenean, badakit, baina adin kontuagatik, *you know*).

Eta 2004an "LILURA SENTITZEKO GAITASUNARI BURUZ" ikuskizuna entseatzen eman nuen egun osoa, entsegu-lokal beltz batean beste bost pertsonekin bizikidetzan, alegia.

- Eta 2008an?

- 2008koa ez dut gogoratzen. Ganora gabetua nengoen ordurako... Negua zela kontuan hartuta, ziur lotan eman nuela osoa. Gero desagertu egin nintzen. Baina gaurkoa ere egun berezi horietakoa da... Gizateriaren historia osoan lehendabiziko aldiz da ...(gaurko data).

- Hara! Egia handia da hori.

- Egi maiuskulua. Maiestatikoa. Sandia-egia. Edo kalabaza-egia. Ospatu beharrekoa dudarik gabe. Ikusi nahi al duzu "LILURA SENTITZEKO GAITASUNARI BURUZ" obraren bideoa?

- Bah, utzi; ez dut behar. Lilura-marmitan erori nintzen txikitan eta pozoigo horiek asaldatu besterik ez naute egiten.

- Bueno, hobe, ez baitugu bideorik ekarri...

- Ez al duzu zeozer miragarririk egin behar? animatzeko...

- Lehen esan dugun agintearen gaiari buruzko poematxo bat ekarri dut. Irakurriko al dizuet?

- Ez. Hobe ez. Poesia modaz at dago berriro. *Ildotik at hago*, Itoizekoak bezala.

- Baina ez da poema normala, eh... hau ez da munduko beste poema guztiak bezalakoa guztiz bestelakoa baizik. Neronek idatzia da...

- Neron! Benetan zaharra orduan. Ezagutzen al duzu Neronen historia?

- Zeraren zera egin zuena? Baina beste historia bat da hori, eta beste batean kontatuko dugu agian...

- Bai, beste batean hobe...

- Agian bai...

Badoaz.